



**EBAZPENA, HAUR, NERABE ETA FAMILIEN ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ HERRITARREI AURRETIAZKO KONTSULTA EGITEN BAITZAIE EUSKADIN GIZARTE-BABESIK GABEKO HAUR ETA NERABEENTZAKO EGOITZA-HARRERARI BURUZKO DEKRETUA EGITEKO.**

**RESOLUCIÓN DEL DIRECTOR DE INFANCIA, ADOLESCENCIA Y FAMILIAS POR LA QUE SE SOMETE A CONSULTA PREVIA A LA CIUDADANIA LA ELABORACIÓN DEL DECRETO DE ACOGIMIENTO RESIDENCIAL PARA LA INFANCIA Y LA ADOLESCENCIA EN SITUACIÓN DE DESPROTECCIÓN SOCIAL EN EUSKADI.**

Haur, Nerabe eta Familien Zuzendaritzak beharrezkotzat jotzen du egoitza-harrerari buruzko dekretu berri bat egitea Euskadin gizarte-babesik gabe dauden haur eta nerabeentzat.

La Dirección de Infancia, Adolescencia y Familias considera necesaria la elaboración de un nuevo decreto de acogimiento residencial para la infancia y la adolescencia en situación de desprotección social en Euskadi.

Dekretuaren xedea da indarrean dagoen arau-esparrua eguneratzea eta egokitzea, bai estatuan, bai autonomia-erkidegoan, bai nazioartean.

El objeto del decreto es la actualización y adaptación del marco normativo vigente, tanto en el ámbito estatal como autonómico e internacional.

Hori guztia, Euskal Autonomia Erkidegoan gizartean babesik gabe dauden adingabeen egoitza-harrera arautzeko, adingabe horiek zaintzeko zentroen eta baliabideen betekizunak, kalitate-estandarrak eta antolaketa- eta funtzionamendu-araubidea ezarri.

Todo ello, con la finalidad de regular el acogimiento residencial de personas menores de edad en situación de desprotección social en la Comunidad Autónoma del País Vasco, estableciendo los requisitos, estándares de calidad y régimen de organización y funcionamiento de los centros y recursos destinados a su atención.

Era berean, dekretuaren helburua izango da hartutako haurren eta nerabeen eskubideak benetan gauzatzen direla bermatzea, arreta integral, indibidualizatu eta espezializatu baten bidez, haien ongizatea, interes gorena eta erabateko gizarteratzea lehenetsiz, babes-sarea egungo gizarte-beharretara eta arau-eskakizunetara egokituz.

Asimismo, el objetivo del decreto será garantizar el efectivo ejercicio de los derechos de los niños, niñas y adolescentes acogidos, mediante una atención integral, individualizada y especializada que priorice su bienestar, su interés superior y su plena inclusión social, adecuando la red de protección a las necesidades sociales y exigencias normativas actuales.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 11. artikuluan xedatutakoaren arabera, xedapen orokorraren izapidetzea sustatzen duen organoak edo zuzendaritzazentroak, testu juridiko arauemaileen proposamenak idatzi baino lehen, kontsulta publikoaren bidez bilduko du gizarteak duen iritzia.

De conformidad con lo dispuesto por el artículo 11 de la Ley 6/2022, del 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, el órgano o centro directivo promotor de la tramitación de la disposición de carácter general recabará en consulta pública previa y, con carácter previo a la redacción de la propuesta de texto jurídico normativo, la opinión de la sociedad.



Aldez aurretiko kontsultaren izapidea xedapen orokorraren izapidetzea sustatzen duen zuzendaritza-zentro edo -organoak bete ahal izango du, iragarkia Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan jarrita, eta herritarrei gonbidapena egingo zaie iragarritako informazioari buruzko iritzia eman dezaten.

Alderdi hauekin lotutako informazioa iragarriko da:

- a) Araua onestearen premia eta egokitasuna.
- b) Arauaren xedeak.
- c) ekimen horrekin konpondu nahi diren arazoak.
- d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik.

Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 320/2024 Dekretuaren 9.e) artikulua emandako eskumenei jarraikiz, honako hau

#### **EBAZTEN DUT**

Herritarrei gonbita egitea ebazpen honen eranskinean jasotako informazioari buruzko iritzia eman dezaten 15 eguneko epean, ebazpen hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

El trámite de consulta pública previa se realizará mediante el anuncio en el tablón de anuncios de la sede de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

El anuncio de consulta pública previa invitará a la ciudadanía a que se pronuncie acerca de los siguientes aspectos:

- a) La necesidad y oportunidad de aprobar la norma.
- b) Los objetivos de la norma.
- c) Los problemas que pretende solucionar.
- d) Las posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias.

En virtud de las competencias atribuidas por el 9.e) del Decreto 320/2024, de 29 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Bienestar, Juventud y Reto Demográfico,

#### **RESUELVO**

Invitar a la ciudadanía a que, durante el plazo de 15 días, a contar desde el día siguiente al de la publicación de esta resolución en el tablón de anuncios de la sede electrónica de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, se pronuncie acerca de la información contenida en el anexo de esta resolución.

Vitoria-Gasteizen, sinaduraren datan

**Gorka Oraá Martínez de Laño**

DIRECTOR DE INFANCIA, ADOLESCENCIA Y FAMILIAS

HAUR, NERABE ETA FAMILIA ZUZENDARIA

## ERANSKINA

### 1.- Araua onestearen premia eta egokitasuna.

Dekretu hau onartzeko beharra haurrak eta nerabeak babesteari buruzko arau-esparruaren bilakaeran datza, bereziki egoitza-harrerari dagokionez, bai estatuan, bai autonomia-erkidegoan, bai nazioartean.

Estatuan, 2015eko erreformek (8/2015 Lege Organikoa eta 26/2015 Legea) adingabeak babesteko sistema eraldatu zuten, adingabearen interes gorena, entzuna izateko eskubidea eta arrisku- eta babesgabezia-egoeren erregulazioa indartuz. Egoitza-harreraren arloan, kalitate-, gainbegiratze- eta irisgarritasun-eskakizun handiagoak ezarri ziren zentroetarako, familia-ingurune gehiago sustatuz eta jokabide-arazoak dituzten adingabeentzako zentro espezifikoak sortuz.

Ondoren, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Begiratzeko Babes Integralaren ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoa (aurrerantzean, HNIUBL) indarkeriaren aurkako babesa indartu zuen, eta zentroak behartu zituen salaketa-mekanismoei buruzko informazioa ematera, prebentzio-protokoloak ezartzera eta ingurune seguruak bermatzera. Adingabeekin esku hartzen duten profesionalen sexu-delituen ziurtagiri negatiboak eskatzea ere sartu zuen.

Sexu Askatasunaren Berme Integralaren irailaren 6ko 10/2022 Lege Organikoa sexu-indarkeriaren aurkako babesa zabaltzeko, erakundeen arteko koordinazioa indartuz eta kalteberatasun bereziko bizitegi-testuinguru instituzionalen delitu-jokabide jakin batzuk larriagotuz, eta, horrela, zigor-kodea aldatu zuen.

Gainera, inoren kargura ez dauden adingabe atzerritarrei buruzko araudiak garrantzia hartu du, administrazioen arteko

## ANEXO

### 1. Necesidad y oportunidad de aprobar la norma.

La necesidad de aprobar este decreto radica, por un lado, en la evolución del marco normativo sobre protección de la infancia y adolescencia, especialmente en relación con el acogimiento residencial a nivel estatal, autonómico e internacional.

A nivel estatal, las reformas de 2015 (Ley Orgánica 8/2015, de 22 de julio y Ley 26/2015, de 28 de julio), ambas de modificación del sistema de protección, que introducen una reforma de gran calado en la Ley Orgánica 1/1996, de Protección Jurídica del Menor (en adelante, "LOPJM") transformaron el sistema de protección de menores, reforzando el interés superior del menor, su derecho a ser escuchado y la regulación de situaciones de riesgo y desamparo. En materia de acogimiento residencial, se establecieron mayores exigencias de calidad, supervisión y accesibilidad para los centros, promoviendo entornos más familiares y creando centros específicos para menores con problemas de conducta.

Posteriormente, la Ley Orgánica 8/2021, de 4 de junio, de protección integral a la infancia y la adolescencia frente a la violencia (en adelante, "LOPVI") reforzó la protección frente a la violencia, obligando a los centros a informar sobre mecanismos de denuncia, implantar protocolos de prevención y garantizar entornos seguros. También introdujo la obligación de disponer de certificados negativos de delitos sexuales para las personas profesionales que intervienen con menores.

La Ley Orgánica 10/2022, de 6 de septiembre, de Garantía Integral de la Libertad Sexual amplió la protección frente a la violencia sexual, reforzando la coordinación institucional y agravando determinadas conductas delictivas producidas en contextos institucionales de especial vulnerabilidad, modificando así el Código Penal.

Además, ha cobrado importancia la normativa relativa a los menores extranjeros no acompañados, orientadas a mejorar la



koordinazioa eta migrazio-egoeren aurrean harrera-gaitasuna hobetzeko.

Autonomia-erkidegoan, Haur eta Nerabeei buruzko otsailaren 15eko 2/2024 Legea (aurrerantzean, "HNL") da egoitza-harrera arautzen duen arau nagusia, Estatuko araudia garatzen baitu eta gizarte-babesik gabeko haur eta nerabeentzako egoitza-harrerako baliabideak arautzen dituen uztailaren 1eko 131/2008 Dekretuan (aurrerantzean, "131/2008 Dekretua") aurreikusitako alderdiak berreskuratzen baititu. HNLk aldaketa garrantzitsuak sartzen ditu adin txikiko babesaren arloan, eta honako hauek arautzen ditu: harreraren hartutako adin txikikoen eskubideak eta betebeharrak, talde teknikoko erreferentziazko profesionala eta babes-plan individualizatua. Era berean, familia-neurriak lehenesten ditu egoitza-neurrien aldean, familiaren berrintegrazioa eta bizitza independenterako prestakuntza arautzen ditu, eta osasun- eta hezkuntza-zerbitzuak lehentasunez eskuratzeko neurriak ezartzen ditu.

Egoitza-harrerari dagokionez, egoitza-baliabideen betebeharrak finkatzen ditu arauak, nahitaezko programak definitzen ditu eta hezkuntza-neurri zuzentzaileak arautzen ditu, euste fisikoa salbuespenezko kasuetarako gordeta. Jokabide-arazoak dituzten adingabeentzako zentro espezifikoak ere jasotzen ditu, estatuko araudiarekin eta 131/2008 Dekretuan aurreikusitako programa espezializatuekin bat etorritz.

Nazioartean, nabarmentzekoak dira Nazio Batuen zuzentarauak, Europako gomendioak eta adingabearen eskubideetan oinarritutako babes-sistemak sustatzen dituzten beste tresna batzuk, familiak indartzea, erakundeen arteko koordinazioa eta harrera-baliabideak hobetzea.

Erreforma horiek guztiak araudia egokitu eta harmonizatu nahi dute, egoitza-harrerako sistema seguruagoa, gainbegiratuagoa, koherenteagoa eta haurren eta nerabeen eskubideetan eta ongizatean zentratua bermatzeko.

Bestalde, dekretu berri hau onartzeko beste arrazoi bat da azken hamarkadetan Euskadin babes-sisteman artatutako

coordinación entre administraciones y la capacidad de acogida ante situaciones migratorias.

A nivel autonómico, la Ley 2/2024 de 15 de febrero, de Infancia y Adolescencia (en adelante, "LIA") constituye la principal norma reguladora del acogimiento residencial, desarrollando la normativa estatal y recuperando aspectos ya previstos en el actual Decreto 131/2008, de julio, regulador de los Recursos de Acogimiento Residencial para la Infancia y la Adolescencia en situación de Desprotección Social (en adelante, "Decreto 131/2008"). La LIA introduce modificaciones relevantes en materia de protección de menores, regulando los derechos y deberes de las personas menores acogidas, la figura profesional de referencia en el Equipo Técnico y el Plan Individualizado de Protección. Asimismo, prioriza las medidas familiares frente a las residenciales, regula la reintegración familiar y la preparación para la vida independiente, y establece medidas de acceso preferente a servicios sanitarios y educativos.

En relación con el acogimiento residencial, la norma fija las obligaciones de los recursos residenciales, define los programas obligatorios y regula medidas educativas correctoras, reservando la contención física para supuestos excepcionales. También contempla centros específicos para menores con problemas de conducta, en línea con la normativa estatal y los programas especializados ya previstos en el Decreto 131/2008.

En el plano internacional, destacan las directrices de Naciones Unidas, recomendaciones europeas y otros instrumentos que promueven sistemas de protección basados en los derechos del menor, el fortalecimiento de las familias, la coordinación institucional y la mejora de los recursos de acogida.

En conjunto, todas estas reformas buscan adaptar y armonizar la normativa para garantizar un sistema de acogimiento residencial más seguro, supervisado, coherente y centrado en los derechos y bienestar de niños, niñas y adolescentes.

Por otro lado, otra de las circunstancias que hace necesaria la aprobación de este nuevo decreto es el



adingabeen kopurua pixkanaka handitu dela. Gizarte-testuinguruan izandako aldaketa sakonek eragin nabarmena izan dute bai Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistemak artatutako biztanleriaren bolumenean, bai babesgabetasun-egoeran dauden adingabeen ezaugarrietan eta profiletan.

Bilakaera horrek gizarte-errealitate konplexuagoa eta askotarikoagoa ekarri du, eta horrek egoitza-harrerako sarea egokitzea eta dauden arreta-baliabideak eta -modalitateak zabaltea eskatzen du, sistemak artatutako hurrek eta nerabeek dituzten hezkuntza-, emozio-, gizarte- eta esku-hartze espezializatuko premia berriei erantzun egokia emateko.

## 2.- Arauaren xedek.

Xedapen honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoan gizarte-babesik gabeko egoeran dauden adingabeen egoitza-harreraren araubide juridikoa arautzea, eta adingabe horiek zaintzeko eta babesteko zentro eta baliabideei aplikatu beharreko betekizunak, kalitate-irizpideak, baldintza funtzionalak eta antolamendu-parametroak ezartzea.

Era berean, arauaren helburua da hartutako haurren eta nerabeen eskubideen eraginkortasuna bermatzea, arreta integral, individualizatu eta espezializatu baten bidez, haien interes gorena babestera, haien ongizatea eta garapen integrala sustatzera eta erabat gizarteratzen laguntzera bideratuta, egoitza-babeseko sistema egungo gizarte-premietara eta indarrean dagoen arau-esparrura egokituz.

## 3.- Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.

Araudia egokitu eta harmonizatu behar da, egoitza-harrerako sistema seguruagoa, koherenteagoa eta haurren eta nerabeen eskubideen babesean eta ongizatean

incremento progresivo del número de personas menores de edad atendidas en el sistema de protección en Euskadi durante las últimas décadas. Los profundos cambios experimentados en el contexto social han tenido un impacto significativo tanto en el volumen de población atendida por el Sistema de Protección a la Infancia y la Adolescencia como en las características y perfiles de las personas menores de edad en situación de desprotección.

Esta evolución ha dado lugar a una realidad social más compleja y diversa, que exige una adaptación de la red de acogimiento residencial y una ampliación de los recursos y modalidades de atención existentes, con el fin de dar una respuesta adecuada a las nuevas necesidades educativas, emocionales, sociales y de intervención especializada que presentan los niños, niñas y adolescentes atendidos por el sistema.

## 2.- Objetivos de la norma.

La presente disposición tiene por objeto regular el régimen jurídico del acogimiento residencial de las personas menores de edad en situación de desprotección social en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, estableciendo los requisitos, criterios de calidad, condiciones funcionales y parámetros organizativos aplicables a los centros y recursos destinados a su atención y protección.

Asimismo, la norma tiene por finalidad garantizar la efectividad de los derechos de los niños, niñas y adolescentes acogidos, mediante una atención integral, individualizada y especializada, orientada a la salvaguarda de su interés superior, a la promoción de su bienestar y desarrollo integral y a favorecer su plena inclusión social, adecuando el sistema de protección residencial a las necesidades sociales actuales y al marco normativo vigente.

## 3.- Los problemas que pretende solucionar la iniciativa.

Resulta necesario adaptar y armonizar la normativa para garantizar un sistema de acogimiento residencial más seguro, coherente y centrado en la protección de los



zentratua bermatzeko.

derechos y el bienestar de niños, niñas y adolescentes.

Egokitzapen hori babes-sistemak artatutako adingabeen kopuruaren gorakadari eta haien profilen eta premien bilakaerari ere erantzuten dio.

Esta adaptación responde también al aumento del número de menores atendidos por el sistema de protección y a la evolución de sus perfiles y necesidades.

#### **4.- Bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak.**

Azaldutako guztiagatik, beharrezkotzat jotzen da araudi espezifiko berri bat egitea, eta ezin da beste alternatibarik hauteman.

#### **4.- Otras posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias.**

Por todo lo expuesto, se considera necesaria la elaboración de una nueva normativa específica, sin que puedan apreciarse otras alternativas.